

Atletismoa ♦ Nazioarteko Atletismo Federazioak Kubako Federazioaren esku utziko du zigorra

Sotomayor, kokainarekin

Kubako atletak ukatu egin du substantzia hori hartu duela



LIONEL CIRONEAU / AP

Kubako ordezkartzak Sotomayorren errugabetasuna azpimarratu du behin eta berriz.

Erredakzioa / Donostia

KOKAINA arrastoak aurkitu dizkiote Javier Sotomayor atleta kubatarrari Joko Panamerikanoetan egindako dopinaren aurkako proban: joko horietako medikuen esanetan, milioitik 200eko kokaina kontzentrazioa agertu zuen atletak, eta kokaina kontuetan minimorik ez dago. Kolpe latza, inondik ere, orain arteko historiako altuera jauzigilerik hobereantzat.

Izan ere, jadanik altuera jauzian irabazi zuen urrezko domina kendu diote Sotomayorri, eta hastear dagoen Sevillako Mundialetik kanpo gelditu daiteke. Horrez gain, bi urte geldirik egoteko zigorra jaso dezake kubatarrak, eta ondorioz Sidneyko Joko Olimpikoetan jokatzetik ez luke izango. Zigor gogorra da oso, eta, 31 urte izanik, ziurrenik Sotomayorren erretiroa ekarriko lukeena.

Dena den, Nazioarteko Atletismo Federazioak ez du oraindik ezer erabaki. Bertako presidente Primo Nebioloren esanetan, kasu hori Kubako Federazioari dagokio printzipioz, eta federazio horrek erabaki beharko du zer-nolako zigorra jarri Sotomayorri. Federazio horrek neurririk hartuko ez balu, orduan hasiko litzateke lane-

«Kokaina filmetan bakarrik ikusi dut»

KOKAINA sekula ez duela probatu errepikatu zuen atzo Javier Sotomayorrek, behin eta berriz. Habanan da atleta, eta kokainaren positiboaren kontu horiek guztiak ukatu egin zituen atzo: «Inoiz ez dut drogarik hartu, ez dut horren beharrik nire markak lortzeko. Kokaina nik pelikuletan ikusi dudana gatik bakarrik ezagutzen dut; beraz, hortik atera kontuak». Atleta kubata-



Javier Sotomayor.

rren aurkako eraso bat dela esan zuen gainera Sotomayorrek: «Gure atzetik ibili dira etengabe, guri kalte egiteko zerbait aurkitu nahian, eta lortu ez dutenean trikimailu zikinak erabili dituzte. Manipulazio eta joko zikinaren biktima izan naiz». Bestalde, lortutako urrezko domina kentzeak min handia eman dio atletari: «Domina hori merezi dut, eta ez dut merezi kentzea».

an Nazioarteko Federazioa.

Kubako Atletismo Federazioak ez zuen ezer esan atzo. Winnipegeko Joko Panamerikanoetan dagoen Kubako ordezkartzak, ordea, argi dauka Javier Sotomayor

errugabea dela. Atletaren positiboarena jakin bezain pronto, haren alde hitz egin zuten guztiak, eta Sotomayorrek kokainarik inoiz hartu ez duela ziurtatu. Gainera, manipulazioa izan delakoan

MARIO GRANDA
(KUBAKO ORDEZKARITZAKO KIDEA)

«Sotomayorri jateko edo edatekoren batean bota diote kokaina, bere kabuz ez luke sekula hartuko»

daude Kubako delegaziokak: «Sotomayorri jateko edo edatekoren batean bota diote kokaina, bere kabuz ez luke sekula hartuko. Frogarik ez daukagu, baina ziur gaude horrela izan dela», esan zuen Mario Granda delegaziokideak.

Bien bitartean, Javier Sotomayor Habanan da etxekoekin. Atzo, azterketa mediko bat egin zioten bizkarrean izan dezaken lesio bat dela eta, eta gero, beste atletekin batera, Fidel Castro presidentearekin egon zen. Kubako Atletismo Federazioak edo Nazioartekoak hartuko duen erabakiaren zain dago orain atleta. Bere izen ona jadanik zikinduta dagoela badaki atletak, baina esandako guztia gezurra dela erakusten saiatuko dela ziurtatu zuen atzo.

Laurogeiko hamarkadaz geroztiko altuera jauzigilerik onena izan da Javier Sotomayor. Munduko lau marka hoberenak berak lortu ditu; Bartzelonako Joko Olimpikoetan bera izan zen hoberena, Stuttgarteko eta Atenasko Atletismo Mundialetan ere bai. Asteazkenean kendutakoa, berriz, Joko Panamerikanoetan lortutako laugarren urrezko domina zuen. Bera da 2,45 metrotik gora saltatzera iritsi den atleta bakarra.

Tau Baskonia ♦

Maldonadok lan gogorrean besterik ez du pentsatzen

Andres Nocioni
argentinarrak
asteazkenean
sinatuko du kontratua

Erredakzioa / Gasteiz

BASKONIAREN entrena-tzaile Salva Maldonadok argi utzi zuen atzo ez duela bere taldearen jokoa besterik pentsatzen. Azken egunetan Zwickker eta Rusconiren etorkizunaz sortu den eztabaida alde batera utzi, eta lanean jarraituko dutela esan zuen. «Gogor entrenatzea da nire ardura bakarra orain», azaldu zuen. «Oraindik gure taldeko jokalariek dira, egunekin argituko da taldean zer toki bete behar duten».

Bestalde, argitu zuen nola baskoniaren jarrera betidanik izan den «onena bilatzea» taldea sendotzeko. «Horrela, prest egon gaitzake kontrolatu ezin diren egoeren aurrean erabakiak hartzeko». Serge Zwickker eta Stefano Rusconi kolokan daude, baina Gasteizko taldeak beste lau pibot ditu: Mills, Morales, Garbajosa eta Pichardo dominikar gaztea.

Serge Zwickker holandarrek TAUn gelditzeko asmoa azaldu zuen herenegun, nahiz eta alde horretatik bat ez etorri taldearen lehendakariarekin. Rusconik, ostera, datorren urtean Gasteizen jarraitu behar badu saskibaloia utzi egingo duela adierazi zuen.

Nocioniren sinadura

Andres Nocioni argentinarrek datorren asteazkenean etorriko da Baskoniarekin bost urtez lotuko duen kontratua sinatzera.

Chapulín ezizena du Andres Nocionik, 19 urte ditu, bi metro luze da, eta etorkizun bikaina ikusten diote adituek. Sinatu bezain pronto elkartuko da bere taldekide berrie-kin, Errioxan.

Baskoniak, jokalariren arbaso italiarrak direla eta, italiar pasaportea lortu nahi dio jokalaria komunitarioa izateko.